

KIMUENE KULTURGUNEA

Kimu berrien sorleku eta topalekua, kultura eta herria loratu daitezten

Artxanberri eraikinean, 1 eta 2 zenbakidun portalen artean kokatua, tamaina eta baliabide ezberdineko hainbat gela eskaintzen dituen kulturaunea da Kimuene. 7 gelaz, areto nagusi batez, bi biltegiz eta komunez osatua dago. Jarraian deskribapen eta argazkiak, baita erabilera arauak eta sarbide aukerak ere.

IZATEKO ARRAZOIA ETA FILOSOFIA

Kimuene Udalaren jabetzako espazioa da, baina erabili eta uzten den espazio izatetik harago joan nahi da. Kimuene "kimuek" osatzen dute, aldian aldian daudenek, herri-mugimendua aldatzeko izanik eta eragile bakoitzak bere zikloa izaten duela kontuan hartuz, kulturauneko erabiltzaileak ere aldatzen joango dira.


Altzariak erabilera anitzeko bide ematen dute, jarri-kendu, eraman-ekarri, jarduera bakoitzak eskatzen duenera egokituz. Bertan daude momentu honetan Musika Eskola, Bertso Eskola, Xake tailerra, Iztueta Dantza Taldea eta herriko txikien jolas-gela. Bakoitzak bere urteroko programa edota jarduerak ditu, baina espazio bera konpartitzeak bide eman lezake orain arte ezagutu gabe gurutzaketak gertatzeko.

Zergatik ez xakean jokatu musika eskolan zeharkako txirula ikasten ari den baten doinuek giroa? Edo dantza eta bertsoa uztartzen dituen emanaldi bat sortu? Kulturaunea honek halako gurutzaketak gertatzea lagundu nahi du ekimen berriak loratu daitezten.



DESKRIBAPENA ETA ARGAZKIAK**BEHE SOLAIRUA****Areto Nagusia: PAGO AARETOA**

Pago egurrez jantzirik, kultu-guneko areto handiena da, 52 metro karratu ditu eta auditorio itxura du, ia 5 metroko altuerarekin. Ongi intsonorizaturia, aretoaren formak eta pago egurrek soinu efektu bikaina izatea eragiten dute. 7 metroko ispilua dago fondoko horman alderik alde, gortina batez tapa daitekeelarik behar ez denean. Iztueta Dantza Taldeak erabiliko du aretoa adibidez, eta hitzaldiak egiteko edo zinema moduan ere balio du, besteak beste. Kulturguneko bihotza izango da, ekimen ezberdinak uztartzeko tokia.

**Behe solairuko gela: HURRITZA GELA**

15,6 metro karratuko gela, behe solairuan dagoen bakarra. Elkar bildu daitezkeen mahai eta aulkiak, ordenagailu mahaia eta giltzapeko armairua daude bertan. Herriko eragileek bilerak egiteko aproposa, irisgarria erabat.

**Behe solairuko biltegia: LIZARRA BILTEGIA**

Bi zatidun biltegia, 24 metro karratukoa. Lehen zatia irekia izango da eta bertan kulturguneko aulkiak egongo dira behar izatekotan guztien eskuragarri eta haurren aulkitxoak (kotxesillak) ere bertan utzi beharko dira. Bigarren zatian, giltzapean, Iztueta Dantza Taldearen materialak eta bestelako kultur materialak (buruhandiak,...) gordeko dira.

LEHENENGO SOLAIRUA**1. URKIA GELA**

34 metro karratuko gela, eskailerak igo eta lehena. Paladun aulkiz, irakasle mahaiaz, pentagramadun arbelaz eta giltzapeko armairuz hornitua. Piano zaharra eta bateria ere bertan daude. Batez ere Musika Eskolak erabiliko duen gela, baita herriko txistulari taldeak, Txanbolinteroek, ere.

**2. HAGINA GELA**

16 metro karratuko gela, eskailerak igo eta bigarrena. Elkar bildu daitezkeen gurgildun mahaiez eta aulkiz, pentagramadun arbelaz eta giltzapeko armairuz hornitua. Piano berria dago bertan, baita ispilua ere horma osoa hartzen duena. Musika Eskolak erabiliko du gela hau, instrumentu klaseak emateko egokia baita, baita Bertso Eskolakoek ere.

3. ELORRI GELA

16 metro karratuko gela, eskailerak igo eta hirugarrena. Elkar bildu daitezkeen gurgildun mahaiez eta aulkiz, arbel zuriz eta giltzapeko armairuz hornitua. Aurtengo kurtsuan Bertso Eskolakoek eta Xakekoek emango diote erabilera, besteak beste.

4. MIZPIRA GELA

15 metro karratuko gela, korridorean laugarrena. Elkar bildu daitezkeen gurgildun mahaiez eta aulkiz, arbel zuriz eta giltzapeko armairuz hornitua. Edozein herritar/talde erabiltzeko moduan bilerak eta lanak egiteko.



5. GOROSTI GELA

17,50 metro karratuko gela, korridorean bosgarrena, Haritza jolas gelaren osagarri izango da zenbaitetan.



6. HARITZA GELA

57 metro karratuko gela, goiko solairuko handiena, eta korridorean azkena. Haurren jolas gunea izango da, horretarako ekipamendua eta materiala dituelarik.



7. SAHATSA BILTEGIA

Bi zatiko biltegia, 20 metro karratukoa. Lehen zatia irekia da eta kulturguneko aulki eta mahaia egongo dira beste geletan behar izatekotan denen eskuragarri, garbiketarako tresnak ere. Bigarren zatian, giltzapean, Musika Eskolakoek, Xakekoek, Bertso Eskola eta Jolas Gelakoek beren materialak gordetzeko aukera izango dute.

KOMUNAK

Behe solairuan komun bat dago eta lehen solairuan bi, guztiak egokituak. Goikoetan hurrei fardela aldatzeko lekua eta gelen garbiketarako materialak daude.

ERABILERA:

Kulturgunean bertan ez da gaur gaurkoz Udal langilerik izango eta beraz, sarrera-irteerak ateetan instalatuta dauden sarraila elektronikoek emango dituzte. Horregatik, kulturguneko edozein gela erabiltzeko sarbide txartela eskuratu beharko da aurretik eta araudia zorrotz errespetatu ere bai, noski.

Ohiko erabiltzaileei kurtso osorako giltza elektronikoa emango zaie, baita herriko eragile ezberdinetako arduradunei ere. Tartekako erabiltzaileek, berriz, Kultur Etxean edo Udaletxean eskuratu beharko dute giltza gelaren eskaera egitean. Kulturgunea izanagatik, bestelako erabilerak hartzeko irekita dago, hala nola, bizilagunen arteko bilerak, talde-lanak edo bakarkakoak...

GILTZA DIGITALAK ERAGILEEI:

Ordu-tegi finkoarekin: arduradun bakoitzari bere giltza emango zaio eta kurtsoko ordu-tegiaren arabera gela zehatza(k) ordu-tegi zehatzean irekitzeko aktibatuko zaie, kurtso hasieran aktibatuta kurtso guztirako balioko duelarik. Ohiko ordu-tegiak gain beste orduren batean sartu nahi izanez gero, Udaletxean edo Kultur Etxean eskatu beharko dute aktibatzeko. Udaletxean eta Kultur Etxean zerrenda bat egongo da giltza kodea eta jabea zehazten dituen eta nahikoa izango da noren giltza, ze geletarako eta noizko aktibatzea nahi den esatea (betiere ordu horretan beste inork hartuta ez badu).

Ordu-tegi finkorik gabe: arduradun bakoitzari bere giltza emango zaio eta Kultur Etxean eskatu beharko dute aktibatzeko hala behar dutenetan. Nahikoa izango da noren giltza, ze geletarako eta noizko aktibatzea nahi den esatea (betiere ordu horretan beste inork hartuta ez badu).

GILTZA DIGITALA NORBANAKOEI:

Momentuz, eskaera egin, giltza hartu eta itzuli egin beharko da, Udaletxean edo Kultur Etxean, egun batzuk lehenagotik eskaera eginda edo unean bertan. Giltza eskatzeko zein gela eta zein egun eta ordutan behar duzun zehaztu behar da eta horren arabera aktibatuko da giltza (betiere gela libre badago). Geletako argazkiak eta ekipamendua ikusteko gida eskuragarri izango duzu.

Giltza jasotzean zure ardurapean geratzen dela eta bete beharreko araudia errespetatuko duzula adierazten duen eskaera-orria sinatu beharko duzu eta araudia hautsiz gero bertan ezarritako ondorioak zeure gain eroriko dira.

Giltza hau kulturguneko sarrerako gailuan pasa eta sarbidea emango dizu zeuk eskatutako gelara eta zeuk eskatutako orduan. Irtetean, ateak itxi besterik ez da egin behar eta gero, segidan edo hurrengo egunean giltza entregatu lehen hartutako leku berean.

Norbanakoa izanagatik, gunea maiztasun handiz erabiltzen duen herritarrari giltza ematea erabaki ahal izango du Udalak.

ARAUDI OROKORRA

- Kulturgunea erabilera anitzerako da eta une berean erabiltzaile eta ekintza ezberdinek bat egingo dute. Elkarbizitarako derrigorrezkoa da oinarrizko arauak bete eta errespetu eta gizatasunez jokatzeko, bai pertsonetik, baita materialekiko ere.
- Instalazioak eta altzariak zaintzea denon ardura da eta materialak dagokion lekutik hartu eta dagokion lekuan uztea ere bai.
- Kulturgune osoan ezin da korrika egin, ezta baloiarekin jolastu ere.
- Erabilera orokorreko eremuetatik pasatzean isiltasuna zaintzea garrantzitsua da beste erabiltzaileen jarduna ez kaltetzeko.
- Kontuan izan korridoreko argiak automatiko piztu eta itzaltzen direla.
- Sarrerako ateak sarbide librean izango du asteleheneetik ostiralera 10:30etik 19:30era. Orduetegi horretatik kanpo barrutik ateratzen utziko du, baina ez du sartzen utziko txartelik gabe.
- Gela eskaerak egiteko ohiko erreserba bideak erabili behar dira: Udaletxera edo Kultur Etxera jo, deitu, idatzi edo ZAPP aplikazio bidez erreserba eskaera eginez.

GELETAKO ARAUDI OROKORRA

- LEIHOAK EZ dira ZABALDU behar, aireztatze-sistema daukate gelek.
- Geletako argiak norberak piztu eta itzali behar ditu, beti ere beharrezkoa den neurrian. GELA UZTEAN ARGIAK ITZALI.
- INSTALAZIOAK ETA ALTZARIAK ZAINTEA DENON ARDURA da, baita materialak dagokion lekutik hartu eta dagokion lekuan uztea ere.
- GILTZAREN ARDURADUNAK du gelan gertatzen denaren ardura, eta beraz bera da ERANTZULEA ezer gertatuz gero.
- BEHEKO KOMUNEAN eta GOIKO SAHATSA BILTEGIAN GARBIKETARAKO TRESNAK egongo dira eskura gelaren erabileraren ondoren garbiketa egiteko.

HARITZA JOLAS GELAKO ARAUDIA:

- Haur bakoitzak bere arduraduna izango du.
- Lagunak, materialak eta araudia errespetatuko ditugu guztiok.
- Meriendarako txokoa egongo da eta erabiltzen duenak txokoa garbi utziko du. Hondakinak korridoreko ontzietan sailkatu.
- Haur-oihala aldatuz gero pardela kaleko errefusa-ontzian bota.
- Jostailu bakoitzak bere lekua du apalean. Hartu, erabili eta berriro bere lekuan utzi behar da.
- Jostailuren bat hondatzen bada horren berri emango da Udalean eta Kultur Etxean, eta konponbidea bilatuko da denen artean.

HARITZA JOLAS GELAKO SARBIDEA:

- Gelara hurbiltzen den lehen gurasoak Udaletxetik edo Karreanetik hartuko du sarbide txartela. Gelara sartu eta leihoko puntu berdea bistan jarriko du, honela jakingo da kaletik jolas gelan norbait badagoela. Argia piztuko du beharrezkoa bada.
- Gelan azkena geratzen denak, argiak itzali, puntu gorria jarri eta txartela itzuliko du egunean bertan edo gehienez hurrengo egunean.
- Giltza itzultzean gela nola geratu den adieraziko du, eta zerbait gertatu bada, horren berri emango du.
- Giltza Udaletxean (astelehen/ostegun 9:00-17:00 eta ostirala 9:00-15:00) edota Kultur Etxean (astelehenetik ostiralera 12:30-19:30) eskatu daiteke.
- Asteburuan jolas gela erabili nahi izatekotan eskaera aurrez egin behar da.